Euzkotar umien aldez

Neure ikastolako mutiltzo baten edestia

"Umeak itz jakintsu mueta gustiak dakiz, ludiko notin gutxik ulertzen bai dituzte ere. Zerbaitegaitik ordea ez du iñoiz itzik egin nai."

Tagore.

Ementxe esango dizutet nere ikastolako mutiltxo baten edestia.

Onelako edestiak, asko edestuko nituzke, euzkeldun umetxoen artean nere bizia eman det eta.

Nere ikastolan izan nuan mutiltxo bat gustiz ona, apala, esangiña egitia ta buru argiduna

Euzko-abendaren gogoa, bere baruan sartu, ta andik iñork ez ataratzeko beaf ziran neuriak ondo artu zituala esan zeikian.

Erderak eta erdera usaiko gauzak, urak arkaitzari bezelaxe irist egiten zioten.

¡Etzan ura bustiko zuanik!

Bere denbora gustian, erderaz egin zituan itzaldirik luzienak iru itzetik etziran igaro. Esaterako "Señorita ¿beber agua?", edo "Señorita ¿premite erretrete?", edo "Señorita, ¿errecreo si?".

Erderaz itz batzuek aterazitziaren, galdetu ortik eta galdetu emendik artu ezkero orduan da txarago. Orduan si, edo no, beste itzik etzuan aren autik erteten.

Bere izena idazteko agintzen nion gustian onela idazten zuan: "Urupiño Barutia"

Nik esaten nion: "Ume, zure izena onela idatzi beaf dezu Rufino de Barutia".

Egun artan bai, esanda bezela idatziko zuan, esangiña zan ta, baña urengo egunian, Zenbakiztiko asmakizunen bat edo eginda ekartzen ziranean "Zeure izena ipiñi umen barenean" esaten ba'nion, Urupiño Barutia, idatziko zuan.

Zenbakizti edo Aritmetica'n, buruz oso azkara zan.

Beste umeak lapitzagaz paperian baño ariñago egiten zituan buruz kenduketak, batuketak, banaketak eta onelako lanak, baña erderaz ezin zeikian ezeren astarnarikeman.

Berezko eragozpena, edo esan-eziña zuan erderazko itz abek biak esateko: "Común denominador".

Esan oi zuan "Común dominador", "Común domiñador", "Común demoniador" baña "Común denominador" iñoiz ez iñoiz. ikastolan ibili zan saspi urtetan ez ginion entzun.

Eta Zenbakiztiko asmakizun bat ipiñi ezkero, "Comun denominador" on bilatzen bai zeikian, eta ederki egiten zuan.

Baña "asmakizuna ederki dago, ta nola egin dezun esan egidazu erderaz" esan ezkero negarak erteten zion.

Nai izan aren ez eukan bere alaren baruan, lan ori nola egin zuan erderaz esateko, erabili beaf ziranitz ak erabiltzea.

Ume arek bai, ixilik egon aren, argi ta garatz esaten zigula ume euzkeldunak beti esaten dutena: "Nik ezin det ezin erabili det eta".

Erderazko aditzak esatia etzan aren burudako egiña.

¡Beste aditz bat erabilteko egiña bai zan ume aren adimena...!

Erderazko Gramática zala ta etzala iru urte zeramazkian beste umiakin iclasera erten gabe mutil gixajuak.

¡Egunero bai zuan artu emanen bat Gramática'kin!

(Daraike)

ARITOKIETA.

Deunen bixitza

Asis'tar Pantzeska Deuna, Irazlea

Deun ospetsu, arigari ta eragipen andikorik izan ba'da, Asis'tar Pantzeska Deunga erkatu leikenik gitxi. Dante oleikari ospetsuak, esan ebana, egi utsa da: Jaungoikua'k Umbria'ko mendi gañetan ipiñi eban eguzki bat izan zala, lurbira gustiri argi ta berotasuna zabaltzeko. Eleiza be diñosku, ostuten yoyan lurbiran Jaungoikua'ganako maitasun suan gartuteko Jaunak bialdu ebala. 1182'n Umbria'ko Asis urian jayo zan Bere Aita Pietro Bernardone, oyal saltzale abaratza izan zan, eta Parantze'tik ostera bat egitean seme bari agaz aurkitu zituanean, amak ipiñi eutson Jon izenaren ordez Pantzezka izena ezari eutson. Lenengo ikasketak egin endoren, aita lez salerosletzan lanean asi zan, eta gaitasun andia agertu be. Baña, aitak salerosterako bera baño maltzúragoa zala igariaz batean, bera baño esku zabalagoa zala be, lasteř igari eban. Pantzezka yolas zale utsa zan, eta uriko gasteen artean alaitasun, zarata-yolasetan txapeldun be bai. Txiki xamara zan, baltzizkea, eta edertasunez ez ain bikaña be, baña bere gogo alai ta begikatasunaz gustiak beragantzen zituan, eta gaste apain zale, abeslari ta jolastien artean bereala galendu zan.

Bere biotzean gastetik maitasun bik sustar sakoñak bota zituezan: txiroen eta izadiaganako maitasunak. Jolas aldietan dirua eruz eralgiaren, beartsuei zer emon beti gelditzen yakon. Ara yasokun bat. Egun baten bezeruz beterik saltokia eukola, ukar eske eldu yakon txiro bat ain barik bialdu eban, baña lasteř bere okeřa igari ta biotza samintasunez bete yakon. Eta erabagi zintsoa artu be, Jauna'ren izenean ukar (limosnea) eskatzen eutsen gustiei emoteko. Jaungoikua txiroetan ikusten eban lez, Bere maitasunak izadi gustian dis-dis egiten ebala ezagutu be, eta Celano Toma'k diñon lez, zelai ta mendiak, Umbria'ko masti bikañak, begien pozgari zan gustiak alaitasunez beterik ipinten eban. Alai eta gaste zoro antzeko agertu aren, bere biotza garbi zaindu eban, eta zabarkeritik iges eginda, alaitasunez jolas egitea atsegin izaten yakon, baña okeřeko bideřik artu barik.

Aldi atan Asis ta Perusia artean izan zan burukaldi baten, kemenez yokatu eban aren, Perusia'taren menpean jausi eta urte betean espetxeratuta euki eben. An be bere gogo alayaz gustiak aritu zituan, beti abesten astia igaroten eban eta. Bere etorkizun ospetsuatzaz amesetan ziarduan eta lagunei esaten eutsen: "Ez al dakizue, nik etorkizun ospetsua izango dodala?".

Azkatasuna lortu ta lasteř, gexo astun eta luze batek artu eban eta osatu zanean bere bizikeran aldakuntza andia egin eban. Etxetik urten aldiak egiten zituan baña ez lagun artean jolas egiteko, bakartokietara joateko baño. Biotza artega eukon Jaungoikua'ren guraria ezagutu nayez ebilen eta Txiroai laguntzeko gogoa biztuagotu yakon eta len eskuz zabalez txindia eralgiten ba'eban, aurerantzean ezesten asi zan. Saritan sakelean eukon gustia emon eta besterik ezean, kapelea, estalkia ta aldean eukon arkondaree be emoten ekian. Egun baten Asis ingurutik zaldi gañean yoyala, usteridun (lepradun) bat aurkitu eban. Lenengotan izugariro iguindu zan, Baña Josu-Kisto'ri jaraitzeko norbere burua azpiratu bear zala oldosturik, zaldi gañetik jatzi, gexoa besarkatu, bere zauri iguingaria laztandu, ta eukon txindi gustia eta pozik aldendu zan iñok ikusi ez ebelako. Onduantxetik deuntasuna jaritxiteko erabagia artu eban, eta ezertan pozik ez eban aurkitzen, otoi eta bakartasunean baño.

Josu-Kisto'ren nekeak eta txirotasuna antzartuteko gogo bizia sortu yakon eta bere poz gustia txiro ta usteridunakaz egoea izaten zan. Beldu Deunen ilobiak ikertzeko Eroma'ra ostera bat egin eban eta an eleizpean aurkitu zituan txiroei eskan txindi gustia emon eta bateri bere soñekoa emen eta bere zar zikiñakaz gorputza estaldu ta eskean jari zan. Pantzezka deuna, berez apain zale ta aroxkoa zan, eta olantxe bere zalekeriak zapaltzen alegintzen zan. Asis'inguruko Damen deunaren eleizan saritan otoitz egiten ikurten eben eta bein bertako kurutzalduak itz oneik esan eutso zan: "Pantzezka, nire etxea bariztau egizu". Entzun eta bereala bere etxera yoan, oyal batzuk artu ta Foligno 'ra saltzeko asmoaz yoan zan. Zaldi ta oyal saldu zituanean, txindi gustia eleizaren ardurea eukon jaupariari emon eutson. Aita zikoitza zan eta, asaretu zan, eta bere semeatzaz eukon jaupariari emon eutson. Aita zikoitza zan eta, asaretu zan, eta bere semeatzaz esaten eutsoezanakaz naikotuta, Gotzaña'gana etxe ondatzale lez salatu eban. Ordurako be etxean zigortu eben. Aitak bere diruak biurtu ta yabego be lagatzeko eskatu eutsonean, gustien aurean soñekoak kendu, eta aita emonaz esan eban: *Orain arte aita deitu dautzut, baña aurerantzean, uste geyagogaz esango dot: Gure Aita zeruetan zagozana.* Gotzañak arituta bere soñekoaz estaldu eban. Baratzain baten txartez antzeko bat emon arte.

Aurentzean, "Txirotasuna" bere maitetzat artu eban eta "Il Poverello" deitzen eutsoen, leiza zulo eta mendietan otoi egin eta gentza ta Kisto'ren txirotasuna ta laztasuna azaltzen eban. Egun baten jaupan egoala itz enoik entzun zituan: "Zuan zizkuetan ez urerik eta zidarik gorde, ez bidez zororik eroan, ez oñetako ez esku-makilarik". Jaunaren itzok entzunda, "orixe da neuk be nai dodana" bere artean esanaz, goitik berako soñeko luze latza, jautsi gariak lokari bategaz lotuta, uri ta eriak zear alaitasunez beterik agertzen zan. Lenengotan ikeka egiten eusenak arituta begiratzen asi ziran. Jaraitzaleak be agertu yakozan. Quintaval Bernarta saleroslea izan zan lenengoa. Urte bete baño lenago amabira eldu ziran. Araudi bat idatzi eban apaltasun eta txirotasuna zeinkitzat ebana "Txikaren" izenak adirazten dabenez. 1210'n III'n Inokentsi'k onetsi eban, 1212'n Asis'tar Kalera neskatil onbidetsuaren ardurapean lekaime Gopatza irasi eban. Inokentsi III'ak. Gizoneskoena gogor xamara zala-ta, lenengotan, ontzat emoteko esan gertu baña, gero amesez Pantzezka, jausten yoyan Laterano'ko Eleizari eutsiten ikusi ebanean, onetsi eban. Geroago, lurbira gustian ain eragipen anuia euki eta on egin daben Irugaren Gopatza irasi eban, beste bietan sartu ezin ziranentzat Bitartean, gizonik jakintsu ta ospetsuenaz gañera, Pantzakatar Gopatzean alkaren leyan gizoste andia sartu zan. Pantzezka'k berak deituta, egin zan Batzar baten 5.000 lekaide inguru biltzeak agertzen dauskunez. Besarkatu, onetsi ta lateri gustietara Goizparkia zabaltzen bialdu zituan. Berak be, iñori kalerik egin barik iñogaitik gaizki esan barik, egizko kistar bizitza alde gustietan zabaltzeari ekin eutson. Laztasunean eredu, apaltasunean guren, txirotasunean bardin gabe ta goi-maitasunean laba goria zan eta, alde gustietan kistar argi ta beroa eguzkiaren antzera zabaltzen eban. Aberazkeri, gofoto, ta atseginkeria nagusi ziran aldietan, txirotasun bake ta laztasun zaletasuna zabaldu eban. Izadi gustia maite eta bere itzaldia saritan txorientzat be izaten ziran. Eguzkia, ura, zugatzak abere ta txoriak izaki gustiak, beratzat anai ziran otso ankera be bai Gubbio'n gertatu zan lez. Ziñopa izateko egariz, Lur Deunak ikeřtu ta Maomaren Soldan'en aurera yoan zan, eta berak nai ebana lortu ezpaeban be, andik lasteř Alberna mendian, Kisto'ren Kurutzearen maitasun ain bizia izan ebalako, bere oin esku ta biotzean Kisto'ren zauriak bariztauta ikustea lortu eban. Ainbeste lan neke, eta batez Jaun-maitasun garez bere gorputza aulduta gelditu zan, eta begi bular eta gibeleko gexoez gañezauriak emoten eutsezan oñazeakaz ebela eziñik be bai.

Nekerik andienak Kisto'gaitik pozaren ta alaitasunik andienaz igaroten zilo gitxi ta burukotzat eguf bat ebala egiten eban. Azkenean, ainbeste nekez, damutu ta bere gorputzari esaten eutson. "Gorputz anaya, parkatu egidak gogor artu audalako aurerantzean biguntxoago artu aut eta."

1226'n urteko irala azkenetan gaizki jari zan, eta osagileak adirazo eutson egun gitxirako bizia eukola. Poztasunez beterik Porziunkulara aldatzeko eskatu eban, antxe il gura ebala-ta. "Eguzkiaren abestia" abestu "areba eriotza" agurtu, goizparkia irakuri eragin, gustiak onetsi, eta lur otsaren gañean, Dabid igarlearen aresbat abesten Celano diñon lez "abesten eriotza artu eban". Bere inguruan bildu ziran txoritxo taldeak abestiz azken eguna egin eutsoen.

Onantxe il zan ludian eragipenik andiena arikoa izan daben Deuna, Chesterton'ek diñonez, ludian izan dan "demokrata" beaf ba'da bakara, Bossuetak diñonez, txirotasunaren maitalerik gartsuena, eta XIII'n Lon'ek diño lez, "beste Kisto bat.

MITARGA.

ARRIETA-BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777.

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irún, Ilno, 313)
2.000 gallinas de "Leghorn" con sus nidos contadores de huevos. Venta de huevos para incubadoras, polluelos y pollas de tres meses.

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas). — GIPUZKOA

MUEBLES GOIKOETXEA ERRENTERI (Gipuzkoa)
"Eredixe"

Euzkel-Idazle-Batzarra

Tarapatan tan, tarantan tan... Olantxe asi zan arako animali gaiztua. Antzera asiko gara, euzkel-idazlien eresija bai litzan -edo. ¿Eta nun geratu ziran bestiak, ba? ¿Etori etziranak? Oreik etxian geratu ziran, gauzak txarto urteten ba-dabe eurek parterik eztabela ixan esateko eran. Tira, askorik ezkintzan batu, baña an ixan gintzanak, batzar ona ta onurakora egin genduban.

Elgoibar'era ezkintzan bazkarija jatera juan, bazkari onena jan genduban-aren. "Mirentxu,,'k ba-dakari janari onak gertauten. Etori etziranak orixe gitxijago euki eben. Etxeko indaba edo babarunakaz konporme geratu biar. Postretan be jan genduban jan! ¡A zelako oturuntza!

Txerena dogu auxe gero, batobatek esango dau. Batzaran egin ziranak atzaldu baño len, bazkarija zelakua ixan zan dirasku. Erantzuna: bakotxak dauko bere abua. Batzaran ondo konpondu gintzan. Araudi barija ontzat-artu genduban. Biar ziran uarak egin geuntsozan eta Jaunguaren bakia baño ezkenduban ixan.

¿Nortzuk batu gintzan, Ara batzuren abixenak edo bestien ixen-gordiak: *Amilgain*, Labayen, Erazti, Barena, *Barensoro, Abeletxe, Aberi, Agarel, Amonatxo, Anaxtaxio, Andoni, Arnoga, Artibai, Basanaitz, Belantz, Dris-Dras, Elaea, Ete, Gabe, Goiburu, Igeraitz, Ira, Iraurgitara, Iturri-Txiki, Ixaka, Jexuxa, Kaiku, Keixeta, Luzear, Leixape, Litargi, Lizarregi, Mailxo, Mirentxu, Murugain, Oraitz, Txalintxo, Urategi, Ure, Zaloña, Zaraspe, Kirol* eta *Lauaxeta.*

Barena jaunak ederki eruan eban batzareko eztaibada otsa. ¡Arek dauko txistu berezija danari dantzarazteko! Urutidazki geurekin ixan ziran: Aretxabaleta'ko, *Aitza* eta Alberdi; Donostia'ko, *Goikoleako txoria*; Alegria'ko, *Zapel* eta *Larainzar*; Berastegi''ko, Mendizabal; Deba'ko, *Tene*; Orio'ko, *Abaraska*; Beasain'en daguan mungitar idazle argia, *Maite*; Zarautz'ko, *Basari* eta Olabeaga; Arasate'ko *Peli*; Irura'ko, *Ontntza*; Lasarte'ko, *Taldantzur* eta *A-Bi*; Tolosa'ko, *Arantza, Antzerti, Yolanda, Zimitz* eta *Uztube*; Goyaz'ko, *Armoya.*

Onein arteko batek esan euskun; Gogoz of eta Butrungoan nago. Geure ustez gogoz batzaran eta sabelez Butronguan ixango zan.

Batzar eder onetan maipuru egon ziran: Barena'tar Poluikarpa, Labayen'dar Andoni, *Luzear, Ira,* Zinkunegi eta *Lauaxeta.* Mutur jokarik etzan ixan eta sortu zan sortuteko ixan genduban Euzkel-Idazle-Batza. Asmo onak daukaguz eta aurera eruango doguz. Orain bakotxaren gogua agertu dagijela idazle azkarak. Ona emen bik bidaldu euskuzanak:

"Euzkel-Idazle-Batza'ri Begira Zerbait"

JEL-pean bizi izango dala, Elgoibar'en erabagi zan. ¿Au zelan aditu? JEL'en kaltez ezer ezingo dabela egin, Elgoibar'en bildu ziran gustien aburu zala, besterik ez, aditzen dot.

Euzko-Alderdiaren alderdikide ala menpekoak ez dirala izan beaf, ez Batza bera ezta bazkideak eurak, argi dago.

Edozein politika eta *eritxidunak* bazkide izango dira. JEL-peko menpetasuna Idazle-Batzaren *izenean* agiriko jartea ez litzateke egokia; *araudiaren* atal baten baruan bai, ordea.

Batzaren Elburu. Euzkel-Idazle geyenen indar ta lanak arteztu ta bateratzeko jayoa izango da Idazle-Batza. Idazlien *Alkartasun antzeko bat,* gustioen laguntzale.

Lugin-Alkartasun batek lugin bakoitzaren bizitza, lan ta eskubideak azke ta bakean utxitxen dituanez, oren antzera Idazleen Alkartasunak idazle bakoitzaren eretxi, lan ta arlo berezietan azke ta bakean utxiko ditu.

Batzaren lanak.—"Euzkaltzaleak" banandu ta asarerazten dituan polika ta Akademi ezdabaida ta gayetatik *aldenduko* da.

Euzkal-Idazle biltzar bati dagokion *beraryiko arloa da idazkiak ugaritu* ta obetuteko lana, *euzkal-irakurleak geitzeko* asmo ta alegiñak. *Izparingietan batez be.*

Lan batzuk zeatzago oartuko doguz:

a) EUZKADI, "El Día" ta beste egunkarien euzkal-idazkien mamiña ta lekua geitu...; *egunaar jasoera bizi-biziak, telegrafo ta urutizkiñez* jakiten diranak euzkeraz egunero ta bere-bereala erderaz lex eman daitezela.

b) Izparingi ofeetan euzkerazko bakarik izan daitezela uri-euzkeldunetatik bidaltzen diran idazkiak ta izpar zeak, ta erdi-euzkeldun diran urietakoak euzkeraz ta erderaz, erdizka, abar ta abar. *Lur-langintza, argintza, ola-langintza-gai-dun* idazkiak... euzkeldunentzat batez be idazten diran idazkietan euzkera jabe ta naguzi izan daitela, ta ez bestetara, euzkeldunak erderara bultzatuz.

d) *Erderazko izparingi batzuk* (adibidez, "Txistulari", "Euzko-Langile", "Jagi-Jagi", "Gaceta del Norte", "Pueblo Vasco" ta abar) euzkeldunagotzeko alegiñak egin, idazkiak ezkiñi ta bidaldubaz.

e) *Idazkian gayak.*—Gai gustietaz euzkeraz idatzi daitentzako alegiñak egin beaf. Nagusiro landu beaf dira oraingotasun -gayak, beafez ta atseginez irakurlea ganatuten dabenak. Gaiegi (cuestionario) bat eralduz, zeñetaz idatzi leikeen idazleai erakutsi yake. Euzkal-Idazle-Batza buru dala beste izkeretatik idazki asko itzuliko dira.

f) *Iragarlak.* Mota gustizkoak geitzeko alegiñak... Euzkerazko liburu gustien berri -eman...

g) *Idazkera.* Akademi-lege ta ezdabatdetara sartu gabe idazkien argitasun ta irakurleai bakarik begira, izkera argi bat erabiltzeko onu ta aragu apal batzuk idazleai eman; bijarko euzkera onutza ereduaz jauri ala artu gabe, *gaurko irakurle geyenak* (aldan geyenak) ulertzen daben izteg ta idazkera zeintzuk diran, auxe erakutsiko yake euzkel-idazleai ta idazkiak argitaldu ta saldu nai dituenai.

h) *Sari ta diru-laguntzak* bilatuko dira. Udal, Alderdi ta abar'tana joanda, izparingietan ala beztez idazkiak argitaltzeko ta saltzeko erastasunak idazleai emango yakez. *Irakurleen zenbakia* idazkien balioaren neurtitzat artuko da geyenetan.

i) Euzkerazko idazki geyenak, nagusiro uri-izparlarienak ofaztu ta zuzendu bearean bidaltzen dira; idazleak eurak ta irakurleak ondo ulertzeko eskatzen daben "Zuzendaritza" Idazle-Batzak eralduko dau zentzun oneko bere eretxi berdiñeko zuzendariak izendatuz.

j) Bearezko euzkel-liburu ta idazki asko egin gabe aurkitzen diran batera, sari bai sari euzkel-idazleak alkaren leyan ta gudan ibiltzen dira, bata bestearen berarizko arlora sartzen dala bien kaltez ta naikoa dau idazki baten ordez bi edo iru gai bardiñetzaz argitaltzen dirala indar ta dirua galdu-eraziz. Lan kaltegari orek ezargertzeko Euzkel-Idazle-Batza aleginduko da. Baita be bearezkoak diran lan ta idazkien "egitazmo" ta "gaitegi" bat eraldu ezkero, idazleai dei-egin ta geyen bear diran idazlanak euren artean bananduko ditu.

k) Euzkeltzale ta euzkotar gustien laguntza bear dau euzkerak bizi izango ba da; indar aundiena daben Alderdi ala Bazkunarena naikoa ez da euzkal-elertia gaurko bere apaltasun ta naste-ilun-negargaritik aupatzeko ta irakurle geyenak bereganatzeko.

Euzkaldun eta euzkaltzale gustien bearean aurkitzen gera ta iñoren laguntasuna ezta ezetziko.

Euzkal-Idazle-Batzaren kanpoan bixi diran Bazkun euzkaltzaleakin euzkeraren onerako alkar-artzeko alegiñak egingo ditu arek, eretxi ta gogo berdiñekin gustiak lan -egin dagien.

Belaustegigoitia'tar Perderika.

Durango'tik, 1933'g. Agorila'ko 16.

ERRIJETATIK

MARKINA

ANTZERKI-JAYA.— Neure azkenengo idazkijan iragarten neban lez, igazi dan igandeko aratsaldeko lauretan asita, antzezki-jai begi-begiko bat ixan geban geure batzokijan.

Antzezkijok asi biar eban ordurako notiñez bete-beterik eguan batzokiko areto ederra

Lenengo "Negarez igaro zan atsua..." antzeztu zan, eta edertxu egin be gero, ta txalo ugariak irabazi ebezan antzezlarijok.

"Deadar" abotsa, Ugartetxea'tar Augustin'ak egin eban; "Jasone", Ugartetxea'tar Mren'ek; "Gergoretxu", Foruria'tar Garbiñe'k; "Domeke", Barutia'tar Miren'ek; "Simone", Garcia'tar Josune'k; "Atsua", Aginaga'tar Miren Kasilde'k; "Eustaki", Aginaga'tar Jakin'ak; "Gorka", Zelaya 'tar Jon'ak eta "Burintxa", Aretxabaleta 'tar Iñakitxu'k. Mendigoxaliak talde bat ziran baña eztakit gustijen ixenik, eta azketsi.

Ondoren gure poxpoliñak egin ebezan euren jolas polit eta aberkoyak era onetan.

"Pra, pra", "Lenengotxu ori", "Trikitixa", "Gora gorritxu", "Monja txurijena". "Uztai-dantza", "Elixabetxu", "Etxe-poxpola", "Trikitixa" ta "Gorule abestija".

"Trikitixa" dirautsot, neskatotxu txiki txiki bik txistu soñuan egin eben dantza azkatubari. Ain polito egin eben ze, aretuan egozan gustijak beya joterañoko bariak egin ebezan eta txaluak txalo ixildu barik jo eutsezan. Dantzan egozon bitartian ja zelako zantsuak jaurti ebazan lekeiara zala esan euskuben neskatila batek!

Gure umiok lenengoz erijari agertu iru diran egunian gurenda aundija ixan dabe. Ixan be. umien jolas oreik politak dira gero.

Zoriionak euren irakasle Josune andeñuari

Umion ondoren, bariro nagusijak "Morroi jatora" antzestu eben, eten-alako bare -algadetan euki eragin eben eurai begira eguan ortetzia.

"Moroya", Foruria'tar Koldobika'k egin eban "Joaquin" jauna, Foruria'tar Laurentzi'k; "Jabier", Aginaga'tar Jokin'ak eta "Eramon", Ugartetxea'tar Augustin'ak.

Eskarik ugarijenak emon biarian gagoz jai oretan loreskiña jo euskun Garcia'tar Pilipa'ri, ta Ibarluzea'tar Mikel txistularijari. Eta eskerak bata, bermeotaren aldez zan jai oretan euren zakelak zabaldu ta zeozertxu emon eben gustijeri.

TXADONKIXUNAK.— Eskar'eko txadonan iñoz baño ospetasun aundijaguaz egin dan bederatziurumari amaya emon yakon igande gabian.

Ata Galdots josulaun agurgarija ixan da txonizlari, ta azkenengo egunian goratu eban benetan euzkotaren ixakerea ta bere ofura garbijak eta arexei jaraitzeko esan euskun

Eskardun Amaren atzeguneko gaberdiko jaupa nagusija be aurten ikusgarija ixan da. Notiña bete-beterik eguan txadona, ta geyenak jaunartu eben. Jaupea ta jaunartze aldiko abestijak Miren'en Alaba'k abestu ebezan, eta edeftxu egin be.

ERIJOTZAK. — Jauna'k Bereganata dauskuz Altzaga basetxeko andria, ta Barquin'dar Domeka'ren semetxuba. Goyan begoz.

Euren etxekuai geure tamal-agura.

DABILTZAZANAK.—Datofen urterarte agur-egn dausku Ata Galdots josulaunak.

Ermua'tik etofita emen agurtu dogu igazi dan igandian Aginaga'tar Peli ango batzokiko lendakarija.

DIÑOSKUBE....—Bijar igandez pelota joko edefenetariko bat egongo dala gure pelotatoki edefian eta an batzen dan txindija bermeotaren aldez ixango dala. Pelotarijok, ludiko pelotatokirik andijenetan jokatutakuak dira ta punterengo pelotarijak ixan be, gero.

Of duaz neure txaluak aurretiaz, zeben anayentzako daukazuben matasun origatik.

Bijar, ba, aratsalde on bat igaruaz pelota jokorik edefena ikusi gura daunak, jo Markina'ra.

ETE.

De Bilbao al Abra

Barakaldo

ECOS DEL BATZOKI.—Se celebró el pasado viernes, festividad de Mikel Deuna, la anunciada velada teatral organizada por Barakaldo'ko Euzko-Batzokija, con la colaboración del grupo artístico del mismo

La entrada registrada la podemos catalogar entre las regulares, por cuya causa la recaudación obtenida no fué la que se esperaba.

Dió comienzo la función con la actuación de la orquesta, que ejecutó admirablemente bellas composiciones vascas. Durante este intervalo un espectador se arrolla resueltamente de las localidades altas de anfiteatro al patio de butacas; el salto ha causado el natural sobresalto y ha puesto los nervios de todos los espectadores en tensión. Con la mayor naturalidad, después de ejecutar el salto, vuelve el susodicho a ocupar su localidad. Al parecer se trataba de alguna apuesta.

Se alza el telón, y podemos admirar un hermoso decorado con una lujosísima habitación muy bien amueblada; los muebles y utensilios han sido cedidos desinteresadamente por el importante almacén de muebles de la viuda de Eugenio de Vinuesa, en cuyo honor suenan nutridos aplausos.

La obra que se representa es la comedia en dos actos conocida por "Maite", y a decir verdad, carece en su totalidad de fondo patriótico. Tomaron parte en esta representación los conocidos abertzales Zamakona, Santamaría y Urrestarazu, y las entusiastas emakumes patriotas señoritas Del Casal y Palacios. Tantos los abertzales como las emakumes desempeñaron sus papeles muy acertadamente, siendo premiados al final de cada acto con nutridos y prolongados aplausos.

Seguidamente se puso en escena "Los Sonroques de Aizburutxu". Esta representación, graciosísima y alegre, no lució lo que se esperaba por la poca [illegible] de varios de los actores, que no permitían que se les entendiese; no obstante, hubo momentos de lucidez, en que el público se divertió de lo lindo.

Destacó la actuación de Santi, a pesar de que estuvo peor que en otras ocasiones; le siguió en méritos el jovencito Zamakona, que nuevamente nos ha demostrado su gran clase de artista. De los gastetxus hemos de hacer destacar la actuación del joven Lahuerta, cumpliendo bien los demás.

En los entreactos actuó el conocido y popular concertista don Anselmo de Oxenbarrena, logrando apuntarse un triunfo señaladísimo.

La velada en conjunto satisfizo a la concurrencia.

A los organizadores y componentes de la Comisión de teatro cuatro letras, para animarles a seguir trabajando como hasta ahora, sin desmayos, en favor de las representaciones vascas e indicarles la conveniencia de que se nos ofrezcan con más frecuencia.

DE PELOTA.—El pasado domingo se celebraron los partidos anunciados en nuestro frontón Arrandi-Alde, organizados por la Comisión de Pelota de nuestro Batzoki, siendo la entrada a los mismos pública y gratuita.

En otro lugar de este número ofrecemos a nuestros lectores unos comentarios a esta interesante jornada.

El próximo domingo, día 8, a las once de la mañana, se celebrará la final del campeonato social de mano, para cuya lucha han quedado clasificadas las parejas Oribe y Aldekoetxea, y Arantzeta y Villarroel. A los cuatro jugadores nuestra enhorabuena.

Pondremos al corriente de los partidos del próximo domingo a los lectores en nuestra próxima nota.—*Basetxe.*

Getxo

CLASES DE SOLFEO EN ALGORTA.—Se halla abierta la matrícula para niños y niñas de ocho a doce años.

Siendo limitado el número de alumnos, serán preferidos los asistentes a la Escuela Vasca y los hijos de socios de Euzko-Etxia afiliados y emakumes.

Las clases serán de doce a una del mediodía y alternas

Para detalles dirigirse a la Secretaría de Euzko-Etxia, pero se advierte que el plazo hábil para la inscripción termina el 15 de los corrientes.

DOS CONFERENCIAS EN ONDARRETA. — Para el próximo sábado se anuncian en el Batzoki de Ondarreta dos interesantes conferencias.

Ocuparán la tribuna don Jesús de Zabala, que disertará sobre "El ideal y la realidad familiar", y la señorita Lucía de Ardantza, que desarrollará el tema "El deber de las emakumes".

Andoni Labayen

Nere adizkide maitea:

Barena'k erana egiteagatik, ara emen nere gogakizun zenbait, E. I. Batza'ri buruz.

I. Idazleei sari egokiak, eta bere orduan.

II. Egunkarietan, euzkerasala dunari sari bat. ("La Voz de Navarra,,'n ez da).

III. Egunkarietan; euzkeraz, "munduko berriak", eta "erietako berriak"; ori da gauf irakur ditekena.

IV. Itzulpenak; iragarkiak; idazkin atarako (euzkerazkoak), guk eskiñi laguntza.

V. Edon lehena; Bazkun unek naidu "uzkadi edo Euzkaleri" geure eria piztu sendotu ta argitu, euzkera ta euzkel irakurgayaren bidez. (Emen daude eranak, aberi Euzkadi, ta aberitzaletasuna).

VI. Idaztitegi edo liburutegi ibiltari bat; diru zenbeiten truk uzteko liburuak.

VII. Euzkera idatzia, bi sailan eman bear da: bat, aldiz ari-ena, bestea, egunkari-astekari-ena; azken auena izan bear da, eria mintzo den bezelako euzkera; bera irakurtzeko baita; euzkera garbi-garbia zenbait aldizkarietan. Orain idazten denetik, senbat ez da irakurtzen! paper euzkaldunak artzen dituzten gustiak, irakurtzen ote dute euzkerazkoa? Ez. Zergatia E. I. B.'k txuritu bear du. "El Día,,'n argitaratu zan euzkeraz Etxari'ko ibil aldi bat; eta juan zeanak ziren aberitzale euzkaltzaleak berek etzekiten, an ezartzen ziren xehetasunak. Egunkari berean, euzkaldunen mesa iragari izan da erdaraz; zergatik? eztelakotz euzkeraz irakurtzen.

VIII. E. I. B.'k argitaratu gogo du aldizkari xume bat: asieran tipia: bi ilabetekaria; ongo egiña; arte (P. Garmendia, bado labura; bertan, eman astekari egunkarietan eman diren lan politenak; ele beste izkelgi guzietan, edo obe Bizkai-Gipuzko ta Nabara, Laburdi 'ko, (iru oyetan), batasunera abian; ikusi bear da, obeki litaken aldizkaria aurentzat, (T. B. O.) emakumeentzat edo zer; nik uste, euzkerak ez duela aski indar berezkunde orek egin ahal izateko; oberena, sail oriek denak, aldizkari berean. Ortaz landa, nere usetan, aldizkari ori bear da izan iri-erexa, iri-bera; atsegiña; iri ta atsegin bidez, bareyatuko dugu aizaago euzkera; euzkera beriz, eritara, erexa, garbikeririk gabea, baño garbia; euzkera beri orietarik sartzen baldin bada aldiz arian, ezta irakurtuko orai irakurtzen den baño geyago; E. I. B. 'koa gañera eritarak dira geyenak, euzkaldun apalak; orientzat baño obe intelectualentzat, euzkera beria.

V'garen atalean dagona baño geyago ez ditake eran; bertzela, atea itxiko litzake, Etchepare, Azkue, Arugain, Zamaripa, Pierre Laffitte, Jauregiberi, Zerbitzari, Ateosteko jentile, bezalakoentzat; eta au bere burua iltzea bezala litzake euzkera gaxoarentzako.

Gañera "Gure Heria" ta "Eskualduna,,'tik bear ditugu Baskunean; oyek nausi dira idasten, gure anayak dira; eta berekin gauza asko antilatu bearak ditugu, bai ortografia'n, bai bestetan euzkera baten bidera juan nai badugu beintzat, eta euzkera nai badugu zaindu, eta aberastu.

Nere aburuan, aldizkaria bear litzake, izkelgi guzien bilko eta anaidi bat: (ala gustiek ikasiko genduke gure auzoko izkelgia eta ele bateratzen da euzkera); eta paper iri egingari edo atsegin bat; au izateko bi gauzak bear ditu; euzkera eritara (Kirikiño!) eta gai alaya. "Atsegiña bear dugu irakutsi euzkera bidez, eta ez euzkera arpegi ilunez."

Deus balio baldin badute gogakizu oriek, eran lagunei.

Zure surea
Aingeru Irigarai
Zuen erabakien aidera naukazue.

MARTIKORENA
Begiyetako galxoen sendagillea
Garibay 13 bis. 2.° - DONOSTIA

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.. DONOSTIA

BIOTZ-BEGIETAN
- Libro de poesías con traducción castellana
Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

MUEBLES Y CAMAS
Isidro y Miguel
RIBERA, 2 (antes Arenal, 4)
Frente al Teatro Arriaga
Teléfono núm. 13.458
Ventas al contado y a plazos

Gregorio de Guezuraga
Efectos navales. Suministros industriales.
Aceites minerales tipo CAMPSA
Patentes de fondos nacionales y extranjeras para embarcaciones de pesca y recreo.
Teléfono. 96.050 — Desierto-Erandio